



AKTA

Bilera mota: MINTEGIA	Ikasturtea: 2021-2022	Bilera zenbakia: 8
Eguna: 2022-05-24	Ordua:14:30-16:30	Tokia: ORDIZIAKO BERRITZEGUNEA

BERTARATUAK:

Arrate Zubillaga (Iparragirre BHI)
Arrate Leunda (Murumend HLHI)
Reme Arrondo (Beasain BHI)
Xabier Meabe (Andramendi Ikastola)
Eider Lardizabal (Olazabal BHI)
Mikel Garate (Olazabal BHI)
Jone Legorburu (UGLE)
Amaia Etxeberria (Domingo Agirre HLHI)
Ariane Obineta (Oianguren BHI)
Lore Oyarbide (La Salle San Jose)
Karmele Gisasola (La Salle Legazpi)
Naiara Azkona (Urdaneta HLHI)

AZTERGAIK:

- 1- **Saioa kokatu.**
- 2- **Hizkuntza Normalkuntza Proiektua 2022-2026:**
 - Ebaluazioa
 - Aurrerabideak, hobekuntza proposamenak
 - Ikasturte Planera jauzi
- 3- **Hainbat informazio eta egiteko:**
 - Praktika onak
 - Galdetegia
 - Euskaraldia
 - Udalerrietako laguntzak
 - Aurten landutakoa
- 4- **Datorren ikasturtea**
- 5- **Norberak lekarkeena**

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK:

1. **Saioa kokatu.** Saioa hasterako ireki ditugu [Moodlea](#), [Sitesa](#), [Ulibarri webgunea](#), [Drive](#).
Driven eta Moodlen daude saio honetan erabili diren materialak eta erreferentziak.
Azken txanpan gara, HNP 22-26 bidalita dugu baina oraindik aldatzeko hobetzeko, zehazteko, sozializatzeko... aukera daukagu.

Irale eta Euskal Giroitze Barnetegiak deialdietako epeak itxita ditugu.



NOLEGAKO memoria egiteko epea ekainaren 15a. Soilik *Nolegako deialdi bateratua* eskatu dutenentzat

2- HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROIEKTUA: deialdiak eta eginbeharrak

○ EBALUAZIOA

Ulibarri programaren webgunean dago kokatua “2018-2022 HNPen Ebaluazio Tresna”, baina ez dago bere osotasunean, bakarrik Brankatik eratorritako informazioa. Joan den martxoan zonaldeko ikastetxe guztiak begiratu ziren programatik, eta guztiek lortua zuten gutxieneko atalase maila.

Ebaluazioa dela eta beste atal batzuk hartu dira kontuan Ulibarri Dekretua 84/2019, ekainaren 11koak 11. artikuluan agintzen duenari erantzuteko:

- IKASTETXEAREN ERREALITERA EGOKITUTAKO PROIEKTUA.
- DIAGNOSIAREN ZEHAZTASUN MAILA.
- KONTUAN HARTZEN DITU ATAL GUZTIAK
- IKASGELA ETA ETAPA KOPURUA
- INGURUNE SOZIOLINGUISTIKOA

Zonaldeko HNAek ikastetxe bakoitzaren balorazioa egin behar izan dute, gure kasuan guztiei balorazio altuena eman zaie. Hona hemen **hainbat ohar**:

- **Lan BIKAINA egin duzue eta ez da zurikeriarik hitz hauetan.**
- **HNP ez da Administrazioarentzat dokumentu bat**, eskolarentzat baizik, zuentzat. Txostenetik, paperatik, errealiterara jauzi behar dugu. Ikastetxe bakoitzari hobetzeko proposamen pertsonalizatuak egin dira.
- **Aurreko HNP oinarri?** Testuak errepikatuak izan dira kasu batzuetan, lehendik idatzitako gehiegi aldatu gabe. Ez du itxura oso ona ematen. Bere horretan? Justifikazio berbera edota helburuak? Non dago bilakaera? Non aldaketa? Non hausnarketa? Garapen bat ikusi behar da.
- **Zuen esperientzia ondo islatzen da HNPan, askorentzat ez da lehena, eta hori zuen adierazpenetan argi geratu da.**
- **Diagnosia, normalean oso aintzat hartu dira datuak.** Garrantzitsua da *Eremuen gaineko hausnarketa* atalean datuei erreferentzia zuzena egitea, zeintzuk izan diren adieraztea, irakurtzen duen orok eskura izan ditzan eta ez soilik egileak. Aurten diagnosiaren irakurketa zuekin konpartitu da, eta proiektuan islatu duzue. Branka alderatzeko azken urtea izango da, izan ere aldaketak egin dira HNP egiterakoan.



- **Helburuen egokitasuna eta zehaztasuna (hor badugu zer hobetu).** Ez da erreparatu adierazleetan edota jarduera motan, soilik Helburuetan. *Norabide* txostena ez genuke ahaztu behar, nondik nora joan nahi dugun irudika dezakegu.
- **Askotan nahasten dira** Esparruak, **ez dira beti ondo bereizten.** Zenbait kasutan, esparru batzuetan, **ideia falta ere badago.**
- **Denboralizazioa**, lau urteetarako helburuak dira guztiak? Bikoak?
- **Askotan nahasten da HNP Hizkuntza Proiektuarekin.** (Hizkuntza Politika? Hizkuntza Trataera?). Aurrera begira gaia argitzea komeni da.
- Egoera hobetzea espero zen arren, **euskararen erabileran beheranzkoa joera askok aipatu duzue.** Baina, egiaztatzeko, ebidentziak izateko, horrelako neurketak eta horrelako planak egin behar dira.
- **Ortografia akatsak** (&bull, kontuan, ditut/ditugu, tresna berak...) ere badira tartean.

Beste buelta edo orrazketa bat egitea merezi du, beste norbaiti eman irakurtzeko, osatzeko...

EKAINAREN 30A arte irekita dugu aplikazioa nahi izanez gero aldaketak egiteko, ez da inora bidali behar.

Ikastetxe bakoitzaren ORDUEN ESLEIPENA hile honen amaierarako jakingo da Ebazpen baten bitartez. Ez da inongo beherapenik izango eta printzipioz HNPko epealdi osoari eragingo dio (aldaketarik ez bada, ?).

Aurtengo ikasturteko **Itunpeko ikastetxeen diruen justifikazioa ekainaren 30erako** egin behar da.

○ IKASTURTE PLANERA JAUZI

Taldean lan egiteko ariketa praktiko bat egin da. Prozedura:

- **Aukeratu** dute nahi den **esparruko Helburu bat** (izan zitekeen partaide guztiok antzekoa dutenen bat, 7. saioan konpartitutakoa...).
- Helburu hori aurrera eramateko bere **Eragin esparru bat aukeratu** (gogoratu dira Eragin esparruak)
- **Urteko Planeko tresna- taula** osatu da (*Ebaluazio adierazleak/ jarduerak/ Nork /Noiz / Baliabideak*)
- **Baliabideak:** Azken saioan konpartitutako helburuak + tresna (ikus ondoren)

IKASTURTEKO PLANA

Eremua:	Esparrua:	Helburua:
---------	-----------	-----------

Eragin esparrua	Helburua	Ebaluazio adierazleak	Jarduera	Nork	Noiz	Baliabideak

Talde txikietan egindakoa Driven kokatu da. Ondoren talde handian elkar jartzea egin da:

- Zein zailtasun izan dira?
- Nola hobetu prozesua? Azken batean datorren **irailaren 30erako Urteko Plana egin beharko da**. Saio hau simulakro bat izan da. Momentuz ezin dugu Urteko plana bete, HNP irekita dugulako.
- Kontuan hartu behar da fase berri honetako, lehen ikasturtea dugula, eta ez dugula aurreko Urteko Planaren jarraipenik izango.

3- HAINBAT INFORMAZIO ETA EGITEKO:

- o **AURTEN LANDUTAKO laburpena** Driveko 8. Saioko karpeten kokatu da, eskura izan dezagun.
- o **PRAKTIKA ONAK** Formatua driven jarri da, kopia egin eta norberarena pdf bezala sartu. **Ekainaren 15erako egina**, gutxienez ikastetxe bakoitzak bat.
- o **GALDETEGIA HNATentzako galdetegia**: Ulibarriren 84/2019ko Dekretuak epealdi bakoitzaren amaieran balorazioa egitea eskatzen du, horretarako besteak beste, HNATEi berea egitea eskatzen zaie, horretarako **epea maiatzaren 31an amaituko da**. Hona hemen betetzeko inprimakia: <https://forms.gle/i9qoX2syKSEVti466>
- o **EUSKARALDIA** **Ekainaren 1ean** ordubeteko on-line bilera irekia, Euskaraldian **Bigarren hezkuntzako ikastetxeek zer egin** erakusteko. Iñaki Eizmendik egingo du aurkezpena. <https://meet.google.com/rni-eauh-zvt>

EUSKARALDIAN, ZER?

Mezu honen bitartez on-line bidezko informazio bilera batera gonbidatu nahi zaituztegu.



Aurtengo udazkenean Euskaraldiaren 3. edizioa izango dugu Euskal Herrian. Hamasei urtetik gorako herritar guztiei zuzendutako aktibazio ariketa erraldoia, hizkuntza ohiturak aldatu eta euskararen erabilera eragiteko.

Aurreko bi edizioetan, Bigarren Hezkuntzako zenbait ikastetxek Euskaraldiaren inguruan zerbait antolatzeko interesa agertu izan dute. Ez soilik 16 urte baino gehiagoko ikasleekin (batxilergoa, lanbide heziketa), 12-16 urteko DBHko ikasleekin ere bai, nahiz eta printzipioz Euskaraldiaren helbururetatik kanpo egon.

Lehen edizioan, 2018an, Lasarte-Oriako udalean ariketa interesgarri eta arrakastatsua jarri zuten martxan hango Oriarte Institutuan, Udaleko euskara Zerbitzua eta Ttakun Euskara elkartearekin elkarlanean. Beste ikastetxe batzuetan ere ekimen desberdinak jarri dira praktikan Euskaraldiaren ingurumarian lehen eta bigarren edizioetan, baina argi izanda 12-16 urteko nerabeentzat egokitu egin behar direla euskaraldiak proposatzen dituen helburu, prozesu eta jarduerak.

Horregatik, ekainaren 1ean ordubeteko informazio bilera antolatu dugu, 10:00etatik 11:00etara, Euskaraldian zerbait antolatzeko interesa izan dezaketen ikastetxeetako HNAT edota zuzendaritzako kideentzat. Biler horretan, Ebete enpresako Iñaki Eizmendik, aurkeztuko dizkigu bai Lasarte Oriako esperientzia, baita gauza daitezkeen beste proposamen batzuk ere.

Bilera honetan parte hartu nahi izanez gero, hemen duzue horretarako behar den esteka:

Ekainak 1, asteazkena (10:00 – 11:00)

Bideodeiaren esteka: <https://meet.google.com/rni-eauh-zvt>

- **UDALERRIETAKO LAGUNTZAK. Egoera zaurgarrian dauden, edota euskara maila urria duten ikasleentzako programak edo ekimenak, udaletatik edo herriko eragileetatik abiatuta (euskara maila hobetzeko klaseak, ahozko hizkuntzan edo erabilera eragiteko jarduerak...) jasotzeko eskatu zaigu. **Bakoitzak ezagutzen dituenak jakinaraziko dizkio Pellori email bidez.****

4- DATORREN IKASTURTEA

- Berritzeguneak desegingo dira eta Laguntza Zerbitzuak berreraiki. Ziurrenik 3 hiriburuetan izango dira.
- Ulibarri Programak jarraituko du, nahiz eta aldaketak izango dituen. Ikastetxeen baliabideak bermatuko dira.
- Betiko legez **urteko plana irailaren 30rerako**
- Mintegia ez dagokigu momentuz zertan izango den, Aholkularitza izango da (on line/zuzena?). **Mintegia izatekotan jakinaraziko da eta saiatuko gara astearteak mantentzen.**
- Jardunaldia **urriak 25-26** Gasteizen
- BERBALAPIKO (LH 3. 4.) eta ELKARHITZ proiektuak (DBH) berriz ere martxan daude, ez dugu informaziorik.
- Gomendioak:
 - H Normalkuntza Planari **zentzua eman** eta bilatu konplizeak ikastetxean
 - **Indartu HNB**
 - **Saretu ikastetxeen artean**, elkar lana bultzatu
 - **Trebatzen**, probatzen, segi, gelara eraman normalizazioa.